



Lanpostuan zendu den gaztearen heriotza salatu du Gazteriaren Kontseilua

**Prekarietateak pertsona gazteen osasuna kaltetzen duela azaldu du
gazte-elkarguneak.**

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 1ean. Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) **beste gazte langile batek lan postuan zegoela zendu izana salatu du, prentsa ohar baten bitartez.** 30 urteko langilea asteartean hil zen, irailak 30, Elorrioko metalgintza enpresa batean lan egiten zuen bitartean. Dirudenez, lanean zebilen makinan harrapatuta geratu zen gaztea.

Gazteariaren Kontseilua bere "atsekabea" adierazi du eta "familia eta lagunei besarkada bat" bidali nahi izan die. "Beste behin ere, lanean hil den pertsona baten heriotza salatu behar dugu, eta, beste behin ere, gaztea da pertsona hori", salatu du. Izan ere, "gazteria lan ezbeharren miran" baitago. Gazte elkarten sareak azaldu duenez, **"lan baldintza kaskarrak lan-istripuen, lan-gaixotasunen eta lan-osasunaren okertzearen zergati zuzen bat dira** eta, beraz, kontuan izanda gazteak direla baldintzarik okerrenak (eta are eta okerragoak) jasaten dituztenak, bere osasungarengan eragin bereziki latza izango du prekarietatearen areagotzeak".

"Pairatzen ditugun lan baldintza kaskarrek larriki kaltetzen dute osasun mentala zein fisikoa", salatu dute. Ildo honetan, "gazteek lan-baldintza txarrenak jasaten dituztela" gogorarazi dute: **aldi baterakotasun** tasa altuak eta behin behinekotasun kronikoa, **langabezia** tasa ia hirukoitza, lan sari baxuagoak eta sistematikoki erabiltzen diren **ez ohiko kontratazio formulak** (bekak, praktikak...) -lan-istripuen estatistika ofizialetan agertzen ez direnak-. Hori bakarrik ez: **"lan karga astunak, ordutegi txarrak** eta **gain-kualifikazioa** pairatzen dute, bai eta negoziazio kolektiboa oztopatzen duten lanpostuak, **ezkutuko ekonomian** ematen den enplegua, **mugikortasun geografiko** altua eta **azpi-kontratazioa** ere". Gainera, "denboran zehar arrisku zehatz batzuei aurre egin behar izanaren ondorioak jasaten dituzte gazte askok (kargen manipulazioa, behartutako jarrera, kutsatzaile kimiko edo biologiak...); egoera kaskar horien ondorioz gaur gazteak direnak izango dira bere osasuna kaltetuta ikusiko dutenak". Hori guztia gutxi balitz -gaineratu du EGK-k- lan arloan egindako azken erreformekin "egoerak okerrera egin du".

Testuinguru honetan, EGK-k lan-osasunaren arloko esku-hartze politikak eta aurrekontuak indartu ditzan eskatu dio Administrazioari. Horrez gain, **hurrengo neurrien alde lan egin dezan galdegin dio:**



Lanean osasuna sustatzeko neurriak:

- Enpresetan, lanaren des-intentsifikaziorako neurriak martxan jartzea.
- Aparteko orduekin bukatzeko neurriak abian jartzea. Enpresek lanpostuaren onurarako izan ohi diren jakintzetan trebatzeko bitartekoak (denbora eta dirua) bere gain hartzea.
- Lanaldi murrizketa.
- Ez ohiko kontratazio formulen gaineko ikuskaritza eta kontrola areagotzea.
- Esku hartze handiagoa Osakidetzaren partetik gaixotasun laboralen antzemate eta tratamenduan.
- Lanpostu bat betetzeko eskatzen den kualifikazioa eta lan hori garatzeko beharrezkoa denaren arteko oreka mantentzeko kontrol mekanismoak ezartzea.
- Azpi-kontratazioa eta behin behinekotasuna mugatzea.
- Zaintza lanen aitortza eta arautzea.
- Goi mailako ikasketak eta lana modu jasangarrian bateragarri egiteko bitartekoak eskaintzea.
- Enpresek gazteen parte hartze laborala eta sindikala ahalbidetzea, horretarako baldintzak eta bitartekoak eskainiz.
- Kontratazio sisteman langileen negoziatzeko gaitasuna arautzea.
- Ordezkapen kontratuak bultzatzea.

Bere aldetik, Gazteriaren Kontseiluak gazteek bizi duten lan prekarietatea salatzen jarraitzeko eta "lan-istripuekin amaitu eta gazteen lan osasuna sustatuko duen gizarte ahotsa" artikulatzeko bere **konpromisoa** berretsi du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
Consejo de la Juventud de Euskadi